

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Busturia



Aurkibidea

Udalerria: Busturia

Sarrera



Busturialdea eskualdeko udalerria da. Oka ibaiaren mendebaldean kokaturik dago. Eskualdeko hirugarren hiririk populatuena da, Gernika eta Bermeoren atzetik. Bost auzune daude: Axpe, Altamira, San Bartolome, San Kristobal eta Paresi. Bere lurralde guztia Urdaibaiko Biosfera Erreserban du. Udalerri hauek ditu mugakide: Sukarrieta iparraldean; Bermeo ipar-mendebaldean; Meñaka mendebaldean; Oka itsasadarra ekialdean; eta, Murueta hegoaldean. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da busturiarren hizkera. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Argazkian, Altamira auzoa ageri da.

Argazkia: Zarateman

- **Biztanleak:** 1.746
- **Euskaldunak:** %65,34

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **45**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **13**
- Bideoak: **32**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Eufemia Filibi Valencia (1925)

Karmen Filibi Valencia (1928)

Elisa Kalzada Ugalde (1929-2022)



San Bartolome auzoko Etxebarriatze baserrian sortu zen 1929. urtean. Aita zuen bertakoa eta ama ondoko etxeko Etxebarrikoa. Hiru neba-arrebatan nagusiena izan zen. Umetan Axpeko mojen eskolara joan zen. Errepublikara garaian eta Gerra Zibilean, umea izan zen arren, oso ondo ezagutzen ditu orduko istorioak, aita herriko zinegotzia zela beste lau herritarrekin batera fusilatu baitzuten Larrinagako kartzelatik Derioko kanposantura eroan ostean. Ondorioz, alargundu zen amak behar asko egin behar izan zuen aurrera egiteko. Baserriko bizimoduak, plazarako osterak, jaiak, bainuak, ipuinak... denetarik kontatu zigun Elisak.

Maite Rodriguez Romero (1931)



Axpeko Urkitza baserriko alaba, Sukarrietako mugetan dagoen etxekoa. Aita bertakoa zuen eta ama Sukarrietakoa. Lau neba-arreba nagusiago izan zituen. Gerran, aita lau urtez Bidanian (Gipuzkoa) eta urtebetez etxeko ganberan egon zen ezkutatuta, faxisten beldurrez, beste asko hil egin zituzten-eta. Baserrian hazi eta bizi izan denez, bertan aritu izan da beti lanean eta oso ondo ezagutzen ditu bertako eginkizunak. Senarra Foruko Landaberdekoa izan zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Ura 100 pezetatan olioak zelakoan

- **Hizlaria(k):** Kalzada Ugalde, Elisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** BUS-007/017
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:25:16. **Bukatu:** 00:27:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostean estraperlo asko zegoen. Behin bere ama Atxurin trenaren zain zegoela, andre batek olioak 100 pezetatan saldu zion. Baina etxean konturatu ziren barrukoa ura zela.

Transkripzioa

Estraperluaz be gure amari-ta pasau jakoi en geuze graziosue pasau jakoi en. Bilbora juen ta Atxurin itxaroten dauzela andratxu bet etorri, halako andra... koittada zeragaz, antzagaz, boltsan botille bi hartun papel estratzakuaz ta papel estratzakua olixun mantxakaz-ta ekarritte. Han itzelezko sekretuegaz saldu olixue. Ehun pezeta. Ehun pezetan botillie. Orduko denporatan. Kuittada-kuittada andratxu bet ta. Etorri etxera ta gure amak gorde deu olixue ba. Orduan koipiaz ta sebuaz ta ibiltten giñen. Ta gorde deu olixue, ba, jai handixetarako. Bilbotik ekarritteko olixue. Ta etorten da gure amuma hor [...kue] ta “Alabie! —diñotso— Begittuzu olixue atzo Bilbotik ekarri dogune zelakue dan?” ta “Ez, gordeta dekot”, “Ba, ure da!”. Ure barruen saldu [eutsoion] ehun pezetagaittik zerak, andratxuek, Bilboko Atxuriko estaziñuen. Ure! Etara kontuek! Horrek botilla illunek, ure han barruen. Ta diñotso gure amak —akordaten naz ointxe be—: “Tira, ama, guk baiño biherrixen handixae eukin dau harek hori biherria eitteko ta”. Ze eingo [otsezun], ba? Nora jungo ziñen hari erreklamaten?

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita lau urtez etxetik kanpo ez zezaten hil (BUS-004/002)

Gerra Zibilean aita lau urtez Bidanian (Gipuzkoa) izan zuen hara ihesean joanda. Hainbat axpetar hil zituzten gerran eta bere aitak horregatik egin zuen hanka.

2. Txakurra armairu barruan ezkutatuta beldurrez (BUS-004/003)

Gerra Zibilean, bere ahizpak neskame lanetan aritzeko joan ziren etxetik. Neba basora joaten zen munizioa eroaten soldaduei. Behin, txakurra desagertu zitzaielakoan, armairu barruan ezkutatuta topatu zuten.

3. Aita etxean ezkutatuta (BUS-004/005)

Gerra Zibila zela-eta, aita lau urtez egon zen Bidanian (Gipuzkoa). Bermeoko kamioi batean etorri zen bueltan; hala ere, ezkutatuta egon zen urtebetez etxeko kamaran (ganbaran). Maitek ez zekien aita han zegoenik ezkutatuta. Herritarren beldur zen, Busturian faxista asko zeuden-eta.

4. Batelean gereziak osten (BUS-004/006)

Kuadrillan zazpina neska eta mutil ziren. Batel bat zuten eta harekin jolasten zuten askotan. Kanala aldera joaten ziren batelean eta gereziak zelan osten zituzten kontatzen du.

5. Itsasoan zein baserrian gizonezkoaren pare (BUS-004/008)

Maite asko aritu izan da itsasoan eta itsasadarrean. Aita hil ostean nebagaz batera itsasora joandako da Gabonetako jaki bila. Baserrian ere lan asko egindakoa da, baita gizon beharretan ibilitakoa ere. Hala ere, sekula ez zioten utzi kodaina pikatzen. Hogei ogerlekoren truke ikasi zuen behia eransten eta beti damutu izan zaio.

6. Udatiarrak lapurretan (BUS-004/010)

Udatiarrak asko osten zuten baserrietan. Behin horietako batekin gertatutakoa kontatzen du. Beraien etxeko lurren mugak ondo markatuta daude, mugarri batean daude denak.

7. Idiekin hondartzako harea garraiatzen (BUS-004/013)

Bere senarrak Sukarrietako hondartzatik harea ateratzen zuten obretarako. Lau idi zituzten eta berak gobernatu behar izan zituen senarra gaixotu eta gero.

8. Konformidade handia (BUS-004/014)

Gaur egungo ume eta gazteek etxean paga eskatzen dute, beraiek ez zuten horrelako burutaziorik. Ez zuten goserik izan, ezta soberan ere.

9. Odolostek lan handia zuten (BUS-004/016)

Odolosteak egiteko lan asko egin behar da aurretik, egun osoa behar da prestaketarako. Bere senarra Foruko Landaberdekoa zen eta behin ume bat odolosten baldera jausi zen; berriro dena batu eta baldera bota zuen amaginarrebak.

10. Txerri-hiltzea ilbeheran (BUS-004/018)

Txerria hiltzerakoan, ilargia ilbeheran egon behar da. Sukarrietako kolonian sei bat txerri hiltzen zituzten eta beti arrak irteten zitzaizkien. Jakin egin behar da txerria noiz hil. Emakumezkoa hilerokoarekin egonez gero ez zuen parte hartzen, txerrikia alferrik galtzen baitzen.

11. Dotrina eta gaiztakeriak (BUS-004/027)

Gabonetan opari gutxi jasotzen zituzten: trapuzko panpinak, eskolarako materiala... Eskola maistrak gaiztoak ziren; mutilen maisuak, osterak, onak. Mutilak udaletxe ondoan egon ziren, aparte. Dotrina abadeagaz jaso zuten, ez mojekin. Orduko pare bat gaiztakeria kontatzen ditu.

12. Gaupasaz garia ebakitzen (BUS-005/002)

Behin San Kristobal batzuetan goizaldeko bostetan erretiratu zen etxera eta aita zain izan zuen zerragaz eskuan garia ebakitzen joateko. Zerrak harri bat jo eta ia-ia atzamarra ebaki zuen. Odola dariola egon arren, garbitu ostean solora bueltatu behar izan zen aita ez haserretzeko. Hala ere, handik gutxira etxera joan zen sabaira lotara, aita ohera ez sartzeko esan baitzion.

13. Aita-alabak haserre (BUS-005/003)

Itsasadarraren ibarretara joaten ziren batelean etxerako belar bila. Behin aita zigortu egin zuen eta mendeku bezala ez zion aitari belarretan lagundu.

Ondorioz, aitak ezin izan zuen belarretan joan eta denek eman zioten arrazoia Maiteri.

14. Batelean belar bila (BUS-005/004)

Itsasadarren ibarretara joaten ziren batelean etxerako belar bila. Bost kargatan gurdikada bat belar ekartzen zuten. Itsasadarren beste aldekoek bertatik pasatzen zituzten txahalak Mundakan hiltzeko.

15. Erditzeetan behiari ardoa eta andreari oilo-salda (BUS-005/005)

Lehen ganaduari ardoa ematen zitzaion erditzerakoan, eta beraien behi batek ardo-botilari begiratu eta ahoa zabaltzen zuen zuzenean. Emakumeei umea izaterakoan, ostera, oilo-salda ematen zitzaien, oilategiko oilorik zaharrenarena hain zuzen ere. Bere amak iloba guztiei eraman zien oilo zaharra eta berari inork ez zion eroan.

16. Umea izan ostean elizara sartzea (BUS-005/006)

Amak umea izan ostean, 8 bat egunez ohean egoten ziren eta gero bizimodu normala egiten zuten. Elizara sartzea derrigorra zen, hori zen amak egin behar zuen lehen irteera ohetik altxa eta gero. Berak klinikan izan zuen alaba eta elizara eroan zuten umea bataiatzera berriro klinikara eroan aurretik.

17. Maistra frankista (BUS-005/008)

Eskolan Maiteri Amada izenez deitzen zioten mojek. Behin, bere eskolako lagun bat bandera altxatzerakoan eskua ez altxatzeagatik eta ez abesteagatik zigortu zuten. Lagun horrek etxean behar asko zuen eta haren ama agertu zen eskolan alabaren bila, baina amak ere ez zuen ezer lortu. Maistra guztiak ziren erdaldunak. Erdaraz egin behar izaten zuten, bestela zigortu egiten zituzten; batzuetan apropos egiten zuten "cuarto cerrado"ra joateko eta bestelako lanik egin behar ez izateko.

18. Kuadrilla bihurria (BUS-005/009)

Bere kuadrillakoak nahiko okerrak ei ziren. Behin bere lagun batek, Laurak, belarretan zebiltzala beroa zuela-eta, astoa utzi eta urtera egin zuen salto kulerotan. Mundakako erromeriara joaten ziren lagunak gaztetan eta orduan ere ibiltzen ziren mutilekin. Bere lagun batek mutil batekin izandako elkarriketa kontatzen du.

19. Mezara bidean sasitzara jausi (BUS-005/011)

Sasiek ere ikusi egiten ei zuten eta kontuz aritu behar izaten zen mutil-lagunagaz. Domeketan goizeko zazpietako mezara joaten ziren. Behin bidean galdu eta sasi artera jausi zen eta dena urratu zuen.

20. Axpeko batzokia (BUS-005/015)

Axpeko batzokia non zegoen azaltzen du. Aita batzokiko kidea zen, eta joaten zen bakoitzean gailetak ekartzen zizkion Maiteri.

21. Kanalako jaietara batelean (BUS-005/018)

Kanalako jaietan, Andra Marietan batelean pasatzen zuten itsasadarra. Gari-txolei sua emanda egiten zuten argia.

22. Heriotza zigorretik libratzeko "hombre buenoan" beharra (BUS-007/002)

Bere aita kartzelatik idatzi zien heriotza zigorrera kondenatuta zegoela. Gutun horretan "hombre buenoak" behar zituztela esan zien aske geratzeko; hau da, atxilotutakoak gizon onak zirela esan behar zuen norbait joatea nahikoa zen. Herriko alkateak sinatu zituen heriotza zigorrak. Abadea ere joatekoa zen, baina ez zuen uste izan hain arin fusilatuko zituztenik. Derioko kanposantuan hil zituzten, beste hainbeste hil zituzten moduan.

23. Hamar urtetara berreskuratu zituzten aitaren hezurrak (BUS-007/003)

Aita Derioko kanposantuan fusilatu eta hamargarren urteurrenean atera zituzten hezurrak. Haginei eta diru-zorroari esker ezagutu zuten. Aitarekin batera fusilatutako beste baten gorpuzkiak ere berreskuratu zituzten. Bertako horma-hobia batean izan zuten ama hil eta Busturira ekarri zuten arte.

24. Aitaren bila Gernikako bonbardaketan (BUS-007/005)

Gernikako bonbardaketaren egunean aitari Gernikatik etortzen lagundu zion. Abioiak ikusterakoan amak agindu zion aitaren bila joateko. Etxera zelan bueltatu ziren oso ondo gogoratzen du.

25. Tropak sartu zirenekoa; eskolako kanta frankistak (BUS-007/006)

Gerra Zibila hasi zenean, gudariek esan zien etxetik alde egiteko. Gaua etxetik kanpo pasatu ostean, etxean zeudela etorri ziren tropak. Auzoko batzuk ondo etorria ere eman zien haiei. Eskolan haiei gorazarre egiteko kanta guztiak ikasi zituzten.

26. Tropek herri bat hartzerakoan, ospatu egin behar (BUS-007/007)

Beraien aita fusilatu ostean ez zuten aparteko arazorik izan mojekin, tratu bera ematen zieten. Tropak herri batera sartzerakoan ospatu egin behar izaten zuten eta elizara kanpaiak jotzera joan.

27. Gerraosteko gosearen eta beldurraren ondorioak (BUS-007/009)

Gerra bukatu zenean, 1939. urtean, egoera normalagoa zen. Hala ere, errotak zarratu zituztenez, gosea zen nagusi. Pare bat txerri etxe barruan hil zituzten beraienean, bestela hura ere entregatu behar zuten-eta garia eta beste hainbat gauza egiten zuten moduan. Badaezpada ere auzokoek ere ezin zuten jakin txerria hil zutenik. Buruan jota hiltzen zuten eta etxe barruan odolustu eta erre. Bere amari behin isuna jarri zioten. Josteko makina ere gordea zuten, errekisatu egin zituzten-eta.

28. Aita fusilatzeko salaketa eta sententzia (BUS-007/011)

Bere aita Gerra Zibilean fusilatu zuten eta hari jarritako salaketaren eta sententziaren kopia bat erakusten du. Sententzian agertzen diren emakumeak Saturrarango kartzelan egon zien, baina heriotza zigorra barkatu zien.

29. 'Euzko Nekazari Alkartea' eta 'Busturiko Euzko-Gastedija' (BUS-007/013)

'Euzko Nekazari Alkartea' sindikatuko eta 'Busturiko Euzko-Gastedija'ko agiri batzuk erakusten ditu.

30. Busturiko errota prezintatuta (BUS-007/016)

Gerraostean errota zarratu zituzten eta etxean egin behar izaten zuten irina ganaduarentzako ehotzeko zuten makinatxoarekin. Irin harekin talo xelebreak egiten zirela dio. Herrian zeuden errota aipatzen ditu. Errotka zabaldu eta gero ere, ehotakoa deklaratu egin behar izaten zuten.

31. Mundakako erregaterak (BUS-007/018)

Itsasoz jenero asko ekartzen ei zuten estraperloan eta asko aberastu egin zirela dio. Mundakatik bi andre erregatera baserriz baserri joatean ziren indaba-era erostera gero beraiek saltzeko. Baina Sukarrietan, "Katie" esaten dioten tokian, herri batetik bestera pasatzerakoan ordainduko beharreko zerga ordaindu behar izaten zen eta hura saihesteko basotik joaten ei ziren otzara buruan hartuta.

32. Eskolan mojekin (BUS-010/002)

(Nikolas) Arroategi kapitainak, eskola bi sortu zituen eta neskentzat mojak jarri zituen irakasle. Ondo erakutsi zietela diote. Euskaraz irakatsi zien maistra aipatzen dute.

33. Eskolaren ostean, baserriko lanak (BUS-010/004)

Eskolatik etorrira, baserriko lanetan aritzen ziren: behiak zaintzen, esnea banatzen, astoaz belarrak ekarri, belarra moztu...

34. Gerrarengatik etxetik ihesi (BUS-010/006)

Gerra garaian gartzetxoak ziren. Etxetik irten behar izan zuten eta aitaren jaiotetxera joan ziren. Handik joan egin behar izan ziren.

35. Soldadu italiarrekin harremana (BUS-010/007)

Italiarrak etxe hutsetan sartu ziren. Ganbaretan egoten ziren milizianoak. Italiarrak jatekoa eta txokolatea ematen zieten. Goserik ez baina behar izana pasatu zuten gerraostean.

36. Gernikako bonbardaketaren eguna (BUS-010/008)

Gernika desaginda geratu zen bonbardaketa eta gero. Beren ahizpa bat bertan Gernikan egon zen egun hartan. Goizez hegazkin bat ibili zela diote, herria ikusten, eta arratsaldean bonbardatu zutela Gernika. Asturiasko errefuxiatuak egon ziren Arroategiren jauregian. Anekdotak bat kontatzen du Karmenek. Ikusi egin zuten hegazkinak zelan pasatzen ziren.

37. Bonbardaketa merkatu egunean (BUS-010/009)

Merkatua pasealekuan egiten zen. Bonbardaketaren zehaztasunak kontatzen dituzte.

38. Basatuste eguneko ibilerak I (BUS-010/012)

Hamabost urte ezkerro, kuadrilla handian ibiltzen ziren neska-mutilak. Behin, basatuste egunez, mendira joan ziren eta gaiztakeria egin zioten Eufemiari.

39. Basatuste eguneko ibilerak II (BUS-010/014)

Basatuste egunez mendira joan zirenean, puruaren ordezkatuaren buztanak banatu zizkieten mutilei. Batzuek barre eta beste batzuek botaka egin zuten.

40. Gazte garaiko pasarte barregarriak (BUS-010/015)

Lagunartean gabarrarekin errearen bestaldera joaten ziren. Lagunartekoak elkarrekin ezkondu dira denak. Beste behin Izarora joan ziren. Pasarte barregarriak kontatzen dituzte.

41. Sagarminaga baserriaren historia (BUS-010/020)

Sagarminaga baserriaren historiari buruz berba egiten dute.

42. Itsasoari kendutako lurrak (BUS-010/021)

Nikolas Arroategiren aginduz, itsasoari zatia kendu zitzaion, nekazaritzarako lurrak izateko. Artoa eta garia ereiten zituzten, eta abereei ematen zitzaaien lastoa.

43. Tennis pistak (BUS-010/028)

Tennis pista egin zuen Egurennek gerra aurrean eta udatiarrak ibiltzen ziren han.

44. Txokolate bero ona zelan prestatu (BUS-010/034)

Txokolateak irakiten duenean, atzeratu eta mugitu egin behar dela diote. Esnea erabiltzen dute, ez ura.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com